

## AZAROAK 25. EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN KONTRAKO EGUNA

**Título de la Actividad:**

Contra la violencia de género ¿Somos capaces de armarnos de valor?

**Etapas:** ESO/FP/FPB/BACH**Edad/Adina:** +11**Objetivos generales de la actividad:**

- Genero indarkeriari lotutako zenbait jarrera identifikatzea.
- Indarkeriaren kontrako jarrera kritikoa garatzea.
- Indarkeriari lotutako jarrerei aurre egiteko eta transformatzeko jarrera aktiboa garatzea.

Iaz indarkeri mota ezberdinak (agerikoa-ikusezina, esplizitua-sotila) ezagutzeko ariketak landu egin ziren. Aurtengo ekintzen bidez iaz egindakoari jarraipena emango zaio eta emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako jarrera kritikoa eta aktiboa sustatzen saiatuko gara.

Lehenengo ariketaren bidez, ausardiaren inguruan hausnartuko dute, *zer da ausardia? Noiz izan behar dugu ausardia?* Bigarren ariketan zenbait galderei erantzungo diete, indarkeriarekin zer ikusia duten zenbait jarrera identifikatuz. Ondoren bi bideo ikusiko dituzte, zeintzuk indarkeriaren kontrako jarrera aktiboa bultzatzen duten.

Azkenik, gaiaren inguruan taldeka (4-5 ikasle) hausnartuko dute eta lelo bat pentsatuko dute. Ikaskide guztien artean onena aukeratu eta lelo horrekin argazki bat egingo dute. Taldekatzea planteatzekoan, kontutan izan behar da momentu batzuetan talde ez-mixtoetan lan egitea gomendagarria izan ahal dela. Tutoreek erabakiko dute taldekatzea, taldeen ezaugarrien arabera.

Ikasleek parte hartzen badute ariketa gehiegi luzatu ahal da, beraz, ariketak aukeratu behar **izatekotan, 1, 3, 4 eta 5** egitea gomendatzen dugu. Askok inplikatzeko diren taldeetan agian bideo bakarra ikusteko aukera izango dute.

Ikasleak gaur egungo egoeraren erantzule egin gabe (errudun sentiarazi gabe), aldaketaren giltza haiengan ere badagoela pentsatzeko aukera eman behar diegu; era horretan indarkeriaren kontra ze jarrera hartu nahi duten pentsarazi beharko diegu: *pasibitasunez jokatu nahi dute? Indarkeriaren konplizeak izan nahi dute? Ala berdintasuna eta ekitatearen alde jokatu nahi dute?*

Hausnarketarako hurrengo bideoak erabiliko dituzte:

- Jazarpena kalean: [https://youtu.be/FzO\\_BVq7Qrc](https://youtu.be/FzO_BVq7Qrc)
- Indarkeri digitala: <https://youtu.be/-JZTKBB08yY>

## AZAROAK 25. EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN KONTRAKO EGUNA

### Indarkeriaren kontra...Ekin ausardiaz!

#### Aurrezagutzak: *Indarkeriaren kontra... Ekin ausardiaz!*

**1. Hurrengo galderak erantzun.**


- Zer esan nahi du zuretzat ausarta izatea?
- Noiz izaten da beharrezkoa adorez betetzea?
- Klase honetan, zeinek uste du ausardiaz ekiteko gai dela?
- Ze ezaugarri ditu pertsona ausarta batek?

**2. Ekintza hauek larriak diren ala ez erabaki.**

	1. Batere larria	2. Ez oso larria	3. Erdizka.	4. Nahiko larria	5. Oso larria
1. Mobilaren bidez zure neskalaguna kontrolatzea					
2. Zure bikoteak sare sozialetan dituen harremanak kontrolatzea.					
3. Zure bikotearen mobila zelatatzea (espiatzea)					
4. Emakume sexy bat erabiltzen duen iragarkia.					
5. Baimenik gabe, emakume baten ipurdia ikutzea.					
6. Zure neskalagunak sare sozialetara igotzen dituen argazkiak kritikatzeko.					
7. Emakume ezezagun bat kaletik jarraitzea.					
8. Beste persona baten argazki intimoak berbidaltzea.					
9. Argazki oso pertsonalak bidalaraztea					
10. Jotzea					
11. Lagun baten edo bikotearen klabeak ematera derrigortzea.					
12. Sexu jazarpena.					
13. Beste pertsona batekin izan dugun elkarrizketa erakustera derrigortzea.					
14. Zure bikoteak edo zure lagunak whatsapp bat momentuan bertan erantzun ezean haserretzea					
15. Emakumeen inguruko txisteak					
16. Emakume ezezagun bati kaletik "neska puska" oihukatzea					

### 3. Bi bideo ikusiko dituzu. Bi pertsonaietatik zein da ausartagoa?

#### 1. Bideoa. *Jazarpa kalean*. [https://youtu.be/FzO\\_BVq7Qrc](https://youtu.be/FzO_BVq7Qrc)



1. Noizbait lehenengo pertsonaia bezala jokatu duzu? Eta zurekin? Noizbait jokatu al dute lehenengo pertsonaia bezala?
2. Bigarren pertsonaia bezala jokatu al duzu inoiz?

#### 2. Bideoa. *Genero indarkeri digitala*

<https://www.youtube.com/watch?v=-JTKBB08yY&feature=youtu.be>



1. Noizbait lehenengo pertsonaia bezala jokatu duzu? Eta zurekin? Noizbait jokatu al dute lehenengo pertsonaia bezala?
2. Bigarren pertsonaia bezala jokatu al duzu inoiz?

## Hausnarketa

---

### 4. 4-5 pertonez osatutako taldeetan galderei erantzun.

1. Bigarren ariketako erantzunen bat aldatuko zenuke? Zeintzuk? Zergatik?
2. Zuen ustez, **zergatik ez zaie aurre egiten horrelako** egoerei? Ze emozio blokeatzen gaituzte horrelako egoerei aurre egiteko orduan?
3. Antzeko egoera baten aurrean, beldurra dela eta, ezer egin gabe gelditu izan zara inoiz? Hemendik aurrera zer egin dezakezu lagun edo ezagun baten jarrera matxistaren aurrean?

## Ondorioak: *Indarkeriaren kontra...Ekin ausardiaz!*

---

### 5. ¿Adorez betetzeko gai gara?

**Zer egin dezakezue zuek emakumeen aurkako indarkeriaren kontra.** Taldeka, folio handi batean, zuen ondorioa laburbiltzen duen lelo bat idatziko duzue (8 hitz gehienez).